



## ARAUTEGIA 2011

### FUTBOL 11

Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritzak, Euskadiko Futboleko Federazioarekin lankidetzan, EUSKADIKO III ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK ERRENDIMENDUARI EKITEKO IBILBIDEAN antolatuko ditu, Gasteizen, Betoño, Lakua-Arriaga eta Abetxuko futbol zelaietan 2011ko maiatzaren 29 eta ekainaren 4ean. Hona hemen arautegia:

#### **1. JOKATZEKO MODUA**

Hiru bat sistemaren bidez bi jardunalditan jokatu da.

Mailak:

Infantilak: 1998 eta 1997an jaiotako mutilak.

#### **2. EKIPOEN OSAKETA**

Lurrealde bakoitzeko hiru talde parte hartuko dute. Lehenengoko biak lurrealdeetan izandako txapelketaren lehenengo eta bigarren goa izango dira. Hirugarren taldea hirugarren sailkatutakoa edo gainontzeko lau talde ezberdinez osatutako nahasketa bat izan daiteke.

Partaide guztiak eskolarteko lizentzia aurkeztu beharko dute.

Taldeak gehienez 25 jokalariz osatuta izando dira, hauez gain . delegatu bat eta entrenatzailea izan daitezke.

Aktan gehienez 22 eta 13 gutxienez jokalaria agertuko dira.

Partida bakoitzean aktan izena emandako jokalaria guztiak zati bana jokatu beharko dute gutxienez.

Ekipo bakoitzak bi kamiseta joko edukitzea beharrezkoa da, bateratasunik gerta ez dadin.

### **3. PARTIDUAREN IRAUPENA**

Partidek hogeita hamabost minutuko iraupenak izando dute. 17,5eko bi zatitan banatuta, bost minutuko atsedendaldi batekin.

### **4. AZKEN SAILKAPENEAN BERDINKETA EGONEZ GERO ERABILIKO DIREN IRIZPIDEAK**

Penalti-puntutik hiru jaurtiketako txanda bat egingo du talde bakoitzak, penaltia botatzeko bi taldeetako jokalaria txandakatuz. Hiru jaurtiketak egin ostean berdinketa badago, penaltiak jaurtitzen jarraituko dute talde batek hutsegini eta besteak sartu arte.

Hurrengo jardunaldiko eta txapelketako postuak zehazteko irizpide hauek jarraituko dira:

- 1.1.- Egindako eta jasotako gol kopuru handiaren diferentziaz, txapelketako partida guztiak kontuan izanda.
- 1.2.- Sartutako gol kopuruaren arabera, txapelketako partida guztiak kontuan izanda.
- 1.3.- Jokatutako bi taldeen arteko emaitzen arabera.
- 1.4.- Berdindutako taldeen arteko penalti jaurtiketen emaitzaren arabera.
- 1.5.- penaltietako gol ezberdintasunagatik.
- 1.6.- Jaurtitako penalti kopuru gutxienagatik.
- 1.7.- Zozketaren bidez.

### **5. BALOIA**

Baloia 5. motakoa izango da. Berotzeko balioak taldeak ekarri beharko dituzte.

## **6. FUTBOL ZELAIA**

Infantilen lehen urteko partaideak BELAR NATURALEAN jokatuko dute.

Betoñoko instalakuntzetan.

Infantilen bigarren urteko partaideak BELAR ARTIFIZIALEAN jokatuko dute.

Lakua Arriaga eta Abetxukoko instalakuntzetan.

## **7. SARIAK**

Ondorengo sariak emango dira:

Garaikur bana lehen eta bigarren sailkatutako ekipoei.

## **8. EZBEHARREN AURREAN.**

Lesio edo ezbeharrik sortu ezker nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

## **9. AZKEN OHARRA**

Arautegi honetan azaltzen ez diren kontu guztietarako, ondorengo testuak hartuko dira kontuan:

- a) 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b) Eskola Kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretua.
- d) Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren 2011ko urtarrilaren 24ko Agindua, 2011ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXX. edizioaren deialdia egiteko dena.
- e) Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendariak, 2011ko urtarrilaren 31ko Ebazpena, 2011eko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXX. edizioaren epaile bakarria izendatzen dena.
- f) Futboleko Euskal Federazioaren Arautegian erabakitakoa.